ru erregeen jaia

Erodes erregearen egunetan, Judea'ko Belen'en Jesus jaio zanean, errege batzuk sortaldetik etorri ziran Jerusalen'a, itaunka: "Non da, juduen errege jaio-barria? Sortaldean ikusi dogu aren izarra, ta agur egitera gatorkioz". Au entzunik, larritu zan Erodes erregea, ta bardin Jerusalen osoa be. Eta apaiz nagusi ta erri-idazlari guztiak batu-azorik, Kristo nun jaio-bearra zan itandu eutsen. Areik esan eutsoen: "Judea'ko Belen'en; orrela bai dago Igarleak idatzita: Ta zu, Belen, Juda'ko baztarra, etzara ezelan be Juda'ko nagusietan txikiena; zugandik jaioko da, ba, nire erri Israel zuzenduko dauan buruzagia". Erodes'ek orduan, azti edo magoak ixillean deiturik, arduraz itandu eutsen izarra noiz agertu yaken. Eta, Belen'era bialtzen ebazala, au esan eutsen: "Zoaze, ta arduraz jakizue umearen barri; ta, aurkitutakoan, iragarri egidazue, ni be agur egitera noakion". Areik, erregeari au entzunik, joan ziran. Eta ara, barriro, sortaldean ikusitako izarra, aurretik yoakien, Umea egoan tokiaren gaiñean gelditu arte. Izarra ikusiz, bizirro poztu ziran. Eta etxean sarturik, Umea bere Ama Maria'gaz aurkitu eben (emen belauniko), *eta auzpez agur egin eutsoen. Eta, euren kutxatillak edegirik, urre, intsentsu ta mirra eskiñi eutsoezan esku-erakutsi. Ta Erodes'engana ez biurtzeko agindua amesetan arturik, beste bide batetik aldegin eben euren erri aldera.*

I. *Izar ondotik.*—Beiñola Balaam sasi-igarleak, nai-ezta be, onan iragarri eban: *Orietur stella ex Jacob, et consurget virga de Israel*: Jakob'engandik izarra sortuko da, ta Israel'gandik agint-makilla jagiko (*Num.*, XXIV, 17). Amabost gizaldi geroago, zeru urdiñean agertzen da izar barri bat, eder ta dirdaitsu. Kristo munduaren argia dogu, ta bere munduratzea izar baten bitartez iragarten da.

An urrin, Medi edo Persi aldean, antza, errege jakitun batzuk ikusi dabe, ta au diñotse alkarri: «Zeruertzean izarrak dizdiz ba'dagi, Erregea jaio dala adierazten dausku; goazen bere billa». Ta, etxe, erri, adiskide ta abar bertan bera itxirik, bidean jarten dira; Gaspar, Baltasar ta Meltxor dira, ta ganbelu gaiñean doiaz; jaio dan Erregeari eskintzeko, opariak daroez kutxatilletan.

Jakitun oneik bai fede zintzoa! Zerua izar egoan gau argi aretan; baiña izar dirditsu guztien artean bat zan argitsuago: bertatik argi ugari ta zoragarria zerion, zirti-zartaka, ta magoak euren kautan: «*Jakob'en izarra da*».

Zer dala-ta magoak bakarrik, ikusi ete eben izar zorakor a? Edozeiñek ikusteko eran dizdiz egian; baiña batzuk bakarrik ikusi. Begiak gora jasota euki bear dira goiko gauzak ikusteko. Beeko lur ziriñean astinka ta garra-garraka bizi diranak, ezin ezelan be zeru-gauzarik begiz-